

JESUS ETA BERE SENIDEAK

1

Badogu bizi barria
 Jesus Jaunak ekarria,
 Bataioan ezarria.
 Bizi barriak Jesus Bera dau
 iturri ta oinarria;
 o bihotz asegarria,
 entzun nire dei larria:
 ase nire egarria.

2

Jesus Maixu Jaun abila,
 behin irakasten dabila
 ta entzuten jente pila.
 Bere ama ta senide batzuk
 datorkioz bere bila
 eta bialtzen mutila,
 emonaz ohar isila:
 Eureka joan dedila.

3

Hau entzunaz bat-batera
 begiratuaz aurrera,
 jarraitzaileen aldera:
 "Honexek dira nire ama ta
 nire senide antzera:
 Hitza entzunaz gainera
 betetzen dabenak bera,
 Aitatxoren esanera".

4

Hau beste egun batean
 Maixuari entzutean,
 bihotza bete-betean:
 "Zorioneko ama zurea,
 sortu zinduen sabelean
 eta ase bularrean!
 Ba ete da ederrean
 ederragorik lurrean?"

5

Aixkide bihotzekoa,
 gogoan jaso gaurkoa,
 nor dan zorionekoa:
 Egiz betetzen dauana dozu
 Aitari entzundakoa,
 hau da birjaiotakoa,
 hau Jainko semetzakoa,
 Aita ta Ama Jainkoa.

6

Hau da Hitzaren indarra,
 Espirituzko sugarra,
 bizi barriko sustarra.
 Honek sortzen dau bizi barria
 eta gugan hiltzen zaharra;
 hak bixkortzen dau baldarra,
 senide egiten bakarra,
 Jainkoaren herritarra.